

Hitzaurrea



apitán Trueno, Dick Turpin, Tom Sawyer eta beste asko izan dira «bizitza oso baterako» pertsonaia gisa aukeratuak, zenbait idazle, argitaldari eta itzultzaile proposatu diegun «Hitzordu» honetan; eskatutakoa, haurtzaroen eragin gehien ekarritako pertsonaiaren bat izan zen, eta erantzunetan era askotako pertsonaiak egonik ere, jatorri berbera daukate denek: gure bazkide horien oroimenean hartu zuten aterpe aspaldian, eta geroztik hantxe bizi dira, betiko bizi ere. Haurtzaroen egituraturutako zaletasunek bizirik baitiraute.

Eskuartearen daukazun zenbaki honetako hurrengo gonbidatuei ere lan bat baino gehiago agindu diegu: ANTTON OLARIAGA ilustratzaile beterano sonatua da «Hitz eta Pitz» gure elkarrizketako protagonista eta, bide batez, aldizkaria azaletik «Hitzatzeraino» marrazkiz apaindu diguna. Elkarrizketatzailea, berriz, beste ilustratzaile bat izan da, MATTIN, aldi berean eskaini baitigu «Hitzontzi» sorkuntza ataleko lana: Portugaleteko Udalaren Komiki Lehiaketan iaz saritutako komiki irakur-ikusgarria, gatz pixka batekin, haur literaturarekin zerikusi handia daukana.



Antton Olariaga

Hitzaurrea

«Hizpide» hartuta, berriz, hirugarren ilustratzaile bat: BELÉN LUCAS, Euskal Herriko ilustraziogintzaren ikuspegi historikoa eskaintzera etorria. Artikulu hau aurtengo azaroaren 3tik 9ra bitartean Bilbon egindako «Euskal Irudigileen Aretoa» delakoan irakurritako txostena da. Areto hori Galtzagorri Elkarteak antolatu du, beste zenbait erakunderen babespean.

Aurreko edukiak osatzeko, ohiko «Hitz Beste» duzu, irakurle: Haur eta Gazte Literaturaren esparruan azken boladan argitaraturiko zenbait libururen kritika eta erreseinak dakarzkizu, ahalik eta informaziorik zabal eta independenteena emateko asmotan.

«Hitzatzea» delakoan, azkenik, efemeride moduko bat: Antoine de Saint Exupery idazle frantsesaren jaiotzaren medeurrena gogorarazten digu MARIASUN LANDAK bere artikuluan. *Printze Txikia* liburu gogoangarriaren idazleari, hortaz, bere txokotxoa egin diogu geure artean.

Hauxe da, beraz, *Behinola* aldizkariaren udazkeneko proposamena, etxeko txoko epel batean zein ikastetxeko liburutegian irakurtzeko gonbidapenarekin batera. Urte, mende eta milurte berria itxaropenez beteta etorriko zaizulakoan, udaberria arte, irakurle maitea.

Zenbaki hau ixtear zegoela, Haur eta Gazte Literaturako aurtengo Euskadi Saria Felipe Juaristiren *Animalien Inauteria* liburuari eman diotela jakin dugu. Bioazkio egileari gure zorionik zintzoenak.



Antton Olariaga